

Bileraren gai ordena:

1. Itsasondoko iraunkortasun diagnostikoa.
2. Eskola berriaren kokapena.
3. Enirio Aralar mankomunitatea.
4. Bidegorria.
5. Ur galerak.
6. Hondakinen batzarra.
7. Inforlur enpresarekin bilera.
8. Herriko enpresa baten eskaera.

1. Itsasondoko iraunkortasun diagnostikoa.

Laia enpresak egindako Agenda 21eko iraunkortasun diagnostikoa Maiatzak 14ean aurkeztu zen herrian. Oraingoan txostenaren laburpena banatu dugu lantaldean. Diagnostikoaren lehenengo bi bloke handiak, "Lurralde gaiak" eta "Baliabide naturalak, hondakinak eta ingurumen kalitatea" lantalde honekin daude erabat lotuta. Bertan ebalututako gaiak: Lurraldea eta plangintza, mugikortasuna, biodibertsitatea/paisaia, ura, hondakinak, ingurumenaren kalitatea, ...

Erabaki da txosten hau kontutan hartuko dugula lantaldearen etorkinzunean. Taldekideek txostena aztertzeko konpromezua hartu dute.

2. Eskola berriaren kokapena.

Bilera honetan eskola berriaren inguruko lanketa erreparasatu behar genuen baina azken hilabetetan aldaketak egon dira. Duela hilabete batzuk hezkuntza sailarekin bilera egin zen eta argi utzi ziguten eskola berria atzeratu egingo dela urte batzuk. Beraz gure lehentasunak aldatu dira. Ekainak 11rako batzar bat aurreikusten genuen eskola berriaren gaia lantzeko baina orain ez dauka zentzurik planteamendu horrek. Batzarra urrirako birplanteatuko dugu. Data zehatza iralean zehaztuko da.

3. Enirio Aralar mankomunitatea.

Iñaki Aizpuruk Enirio Aralarreko mankomunitatearen problematikaren azalpenak eman ditu lantaldean. Laburbilduz lan handia dago bertan egiteko baina baliabide gutxi lan horiek aurrera eramateko. Gure taldekidea den Iñakik gaia sakonki lantzeko asmoa du, mankomunitatearen lehendakari den Ordiziako alkatearekin kordinatuz.

4. Bidegorria.

Laster izango da ofiziala lizitazioaren emaitza. Lanak berehala hasiko dira. Enpresarekin bilera bat egin nahi da obraren planifikazioa egiteko.

5. Ur galerak.

Xabi gai hau lantzen ari da.

6. Hondakinen batzarra.

Maitza bukaerarako aurreikusten zen herri batzarra pixkar atzeratu da. Data berria jarri dugu: Ekainak 11.

7. Inforlur enpresarekin bilera.

Topografia kontuak lantzen dituen Inforlur enpresak bere “inforgentziak” delako proiektua aurkeztu digu. Printzipioz herrian ez dugu zerbitzu honen beharra ikusten, batez ere prezioa kontutan hartuta.

8. Herriko enpresa baten eskaera.

Herriko enpresa batek bere lokala txikia geratu zaiola adierazi digu eta ondoko “Merkalde” eraikinera pasatzeko asmoa duela adierazi digu.